



BIDAIARIAK/VIAJEROS

A

2025-05-30



1	Zer garraio mota egin daiteke autobus batekin?
a.	Erabilera orokorreko garraio erregularra.
b.	Eskatu ahalako garraioa.
c.	Garraio pribatu osagarria.
d.	Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

1	¿Qué tipos de transporte se pueden realizar con un autobús?
a.	Transporte regular de uso general.
b.	Transporte discrecional.
c.	Transporte privado complementario.
d.	Todas las respuestas anteriores son correctas.

2	Eskola-garraioa eta langileen garraioa, zer zerbitzu motaren modalitateak dira?
a.	Eskatu ahalako zerbitzukoak.
b.	Erabilera orokorreko zerbitzu erregularren modalitateak dira.
c.	Erabilera bereziko zerbitzu erregularren modalitateak dira.
d.	Modalitate horiek ez dira existitzen.

2	El transporte escolar y el de trabajadores, ¿de qué tipo de servicio son modalidades?
a.	Del servicio discrecional.
b.	Del servicio regular de uso general.
c.	Del servicio regular de uso especial.
d.	Estas modalidades no existen.

3	Zein epetan egingo da sozietate anonimo baten ohiko batzarra?
a.	Ekitaldi bakoitzeko lehenengo hamabost egunen barruan.
b.	Ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan.
c.	Ekitaldi bakoitzeko lehenengo sei hilekoaren barruan.
d.	Ekitaldi bakoitzean, urte naturalean zehar.

3	¿En qué plazo se celebrará la junta ordinaria de una sociedad anónima?
a.	Dentro de los quince primeros días de cada ejercicio.
b.	Dentro del primer trimestre de cada ejercicio.
c.	Dentro de los seis primeros meses de cada ejercicio.
d.	Cada ejercicio, a lo largo del año natural.

4	Galtzadako erreiak:
a.	nahikoa da motozikleten zirkulazioa ahalbidetzeko adinako zabalera izatea.
b.	beti mugatuta egon behar dute.
c.	ezin dira mugatuta egon.
d.	luzetarako bide-marren bidez mugatuta egon daitezke, edo ez.

4	Los carriles de una calzada:
a.	basta con que tengan anchura suficiente para permitir la circulación de motocicletas.
b.	siempre tienen que estar delimitados.
c.	no pueden estar delimitados.
d.	pueden estar delimitados, o no, por marcas viales longitudinales.

5	Bidairiak garraiatzeko enpresa batean, noren eginkizuna da ibilgailu baten funtzionamendu zuzena zaintzea?
a.	Gerenteari.
b.	Trafikoko buruari.
c.	Gidariari.
d.	Komertzialari.

5	En una empresa de transporte de viajeros, la vigilancia del funcionamiento correcto de un vehículo es función propia del:
a.	Gerente.
b.	Jefe de tráfico.
c.	Conductor.
d.	Comercial.

6	Nahitaezkoa da laguntzaile bat egotea adingabeak garraiatzen dituen autobus batean:
a.	14 urtetik beherako haurren bat dagoen garraio guztietan.
b.	autobusera igotzeko operazioetan, baina inoiz ez da derrigorrezkoa bidaian bertan egotea.
c.	eskola-umeen erabilera bereziko garraio erregularretan, dagokion baimenak hala zehazten duenean.
d.	autobusetik jaisteko operazioetan, baina inoiz ez da derrigorrezkoa bidaian bertan egotea.

6	Es obligatoria la presencia de un acompañante a bordo de un autobús que transporte menores:
a.	en todo transporte en el que haya algún menor de 14 años.
b.	durante las operaciones de subida al autobús, pero nunca es obligatoria su presencia durante el resto del viaje.
c.	en los transportes regulares de uso especial de escolares, cuando así lo especifique la correspondiente autorización.
d.	durante las operaciones de bajada del autobús, pero nunca es obligatoria su presencia durante el resto del viaje.

7	Erabilera orokorreko garraio erregularreko zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuen epea ezin da izan hau baino luzeagoa:
a.	99 urte.
b.	75 urte.
c.	15 urte.
d.	10 urte.

7	El plazo de los contratos de gestión de servicios públicos de transporte regular de uso general no puede ser superior a:
a.	99 años.
b.	75 años.
c.	15 años.
d.	10 años.

8	Zer dakar aldi baterako errei gehigarri bat prestatzeak?
a.	Istripua izateko arrisku handia.
b.	Zirkulazioaren noranzko batean errei gehigarri bat izatea.
c.	Zirkulazioaren noranzko desberdinetan bi errei izatea eta erdiko errei bat noranzko bietarako.
d.	Zirkulazioaren noranzko batean hiru errei izatea.

8	¿Qué supone la habilitación de un carril adicional circunstancial?
a.	Un alto riesgo de accidente.
b.	Disponer de un carril adicional en un sentido de circulación.
c.	Disponer de dos carriles en distintos sentidos de circulación y de uno central para el uso de ambos sentidos.
d.	Disponer de tres carriles en un sentido de circulación.

9	Lurraren inklinazioak autobusaren mugimenduari eragiten dion modua maldaren mailaren arabera da, eta...
a.	ibilgailuaren masa osoaren arabera.
b.	pneumatikoen presioaren arabera.
c.	abiadura-kaxa motaren arabera.
d.	Erantzun guztiak zuzenak dira.

9	La forma en que la inclinación del terreno afecta al movimiento del autobús depende del grado de la pendiente y
a.	de la masa total del vehículo.
b.	de la presión de los neumáticos.
c.	del tipo de caja de cambios.
d.	Todas son correctas.

10	Ibilbide erreala deskribatu nahi dena baino erradio txikiagoko bihurtze bat bada, autobusa dago...
a.	keinadan.
b.	gainbiraketan.
c.	balantzan.
d.	azpibiraketan.

10	Si la trayectoria real es una curva de menor radio que la que se pretende describir, el autobús se encuentra en:
a.	guiñada.
b.	sobreviraje.
c.	cabeceo.
d.	subviraje.

11	Zeri egotzi ohi dakiok balaztatzean autobusak duen portaera okerra?
a.	Zamaren estibatze egokiari.
b.	Puzte presio egokiari.
c.	Esekidura sistemaren portaera egokiari.
d.	Aurreko eta atzeko ardatzetako gainkargaren ohiko fenomeno da.

11	El incorrecto comportamiento del autobús durante el frenado es un fenómeno típico:
a.	de la correcta estiba de la carga.
b.	de la correcta presión de inflado.
c.	del comportamiento correcto del sistema de suspensión.
d.	de la sobrecarga en los ejes delantero y trasero.

12	Zertan datza alboko gidatze-indarra?
a.	Autobusaren direkzioa mantentzen duena da.
b.	Indar eragilearen aurka jarduten duena da.
c.	Marruskaduren eta erakarpenaren emaitza da.
d.	Airearekiko erresistentziaren emaitza da.

12	¿En qué consiste la fuerza de guiado lateral?
a.	Es la que conserva la dirección del autobús.
b.	Es la que actúa en contra de la fuerza motriz.
c.	Es la que resulta de la fricción y de la atracción.
d.	Es la que resulta de la resistencia al aire.

13	Zer zailtasun gehigarri izan ditzake autobus bateko gidariak industrialdeetan zirkulatzean?
a.	Trafiko-kontrolak maiz egotea.
b.	Horrelako bideak ez daudela irekita ibilgailuen trafiko orokorrera.
c.	Ohiko gidariak gehiegizko arreta jartzen dutela.
d.	Ohiko erabiltzaileek bide horietatik zirkulatzen duten modua.

13	¿Qué dificultades adicionales puede encontrar el conductor de un autobús al circular por polígonos industriales?
a.	La presencia de frecuentes controles de tráfico.
b.	Que este tipo de vías no están abiertas al tráfico general de vehículos.
c.	El exceso de precaución de los conductores habituales.
d.	La forma en que acostumbran a circular por estas vías los usuarios habituales.

14	Europar Batasunean bidaiarien nazioarteko garraioa zerbitzu erregularrak emateko baimenak:
a.	enpresa bakar batek ustiari behar ditu.
b.	egiten den bidaia bakoitzerako ematen dira.
c.	eman daitezke, nahiz eta ibilbide bera ustiatzen duten beste enpresa batzuk izan.
d.	Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

14	Las autorizaciones para prestar servicios regulares de transporte internacional de viajeros en la Unión Europea:
a.	exigen su explotación por una única empresa.
b.	se otorgan para cada viaje que se realice.
c.	se pueden otorgar, aunque haya otras empresas explotando el mismo trayecto.
d.	Todas las respuestas son correctas.

15	Zer hartzen du kontuan bidaiarien barne-garraioari buruzko araudiak?
a.	Herrien barruan bakarrik egiten dena.
b.	Europar Batasunaren barruan egindakoa.
c.	Herrialde baten mugak gainditzen ez dituen garraioa.
d.	Schengengo esparruaren barruan egindakoa.

15	¿Qué considera la normativa transporte interior de viajeros?
a.	El realizado en el interior de las poblaciones de forma exclusiva.
b.	El realizado dentro de la Unión Europea.
c.	El transporte que no sobrepasa los límites de un país.
d.	El realizado dentro del espacio Schengen.

16	Bidaiarien garraio pribatu osagarria egiten denean, modu independentean fakturatu ahal izango al zaizkie bezeroei kontzeptu horrengatik?
a.	Bai.
b.	Ez.
c.	Garraioa 500 km-tik gorakoa bada bakarrik, joan-etorria barne.
d.	Garraioa 500 km-tik gorakoa bada bakarrik, joanekoan.

16	Cuando se realice un transporte privado complementario de viajeros, ¿se podrá facturar a los clientes por este concepto de modo independiente?
a.	Sí.
b.	No.
c.	Solo si el transporte supera los 500 km, ida y vuelta incluidas.
d.	Solo si el transporte supera los 500 km de ida.

17	Zer adierazten du BUS inskripzioa duen marka zuriak?
a.	Ibilgailu jakin batzuentzat erreserbatutako errei baten hasiera.
b.	Errei edo bide-gune bat autobusak zirkulatzeko, gelditzeko edo aparkatzeko gordeta dagoela, aldi baterako edo betiko.
c.	Errei edo bide-gune bat autobusen eta taxien zirkulaziorako bakarrik dagoela erreserbatuta.
d.	Erreia edo bide-gunea ez dagoela autobusak aparkatzeko bakarrik erreserbatuta.

17	¿Qué indica la marca blanca con la inscripción BUS?
a.	El comienzo de un carril reservado para determinados vehículos.
b.	Que un carril o zona de la vía está reservado, temporal o permanentemente, para la circulación, parada o estacionamiento de autobuses.
c.	Que un carril o zona de la vía está reservado para la circulación de autobuses y taxis, solamente.
d.	Que el carril o zona de la vía no está reservado exclusivamente para el estacionamiento de autobuses.

18	Autokar baten erabiltzaileei segurtasun uhala erabiltzeko betebeharraren berri eman behar al da?
a.	Bai.
b.	Adingabeak badira bakarrik.
c.	Bakarrik adingabeak badira eta heldu batekin ez badoaz.
d.	Inoiz ere ez.

18	¿Se debe informar a los usuarios de un autocar de la obligación de usar los cinturones de seguridad?
a.	Sí.
b.	Solo si son menores de edad.
c.	Solo si son menores de edad y no van acompañados de un adulto.
d.	En ningún caso.

19	Zer prozedurari jarraitzen zaio eskola garraioan aritzen den autobus baten aldizkako ikuskapen teknikoetan?
a.	Legeria orokorrak eskatutako xedapenak betetzen diren soilik berrikusten da.
b.	Nahitaezko ikuskapen bakoitzean xedapen orokorrak eta espezifikoak betetzen diren berrikusten da.
c.	Nahitaezko ikuskapen guztietan xedapen orokorrak betetzen diren berrikusten da, eta bi ikuskapenetik behin xedapen espezifikoak betetzen diren berrikusten da.
d.	Nahitaezko ikuskapen guztietan xedapen orokorrak betetzen diren berrikusten da, eta hiru ikuskapenetik behin xedapen espezifikoak betetzen diren berrikusten da.

19	¿Qué procedimiento se sigue en las inspecciones técnicas periódicas de un autobús dedicado a transporte escolar?
a.	Solo se revisa el cumplimiento de las disposiciones exigidas por la legislación general.
b.	Se revisa el cumplimiento de las disposiciones generales y de las específicas en cada una de las inspecciones obligatorias.
c.	Se revisa el cumplimiento de las disposiciones generales en todas las inspecciones obligatorias y el de las específicas, en una de cada dos.
d.	Se revisa el cumplimiento de las disposiciones generales en todas las inspecciones obligatorias y el de las específicas, en una de cada tres.

20	Zein eperako emango dira erabilera bereziko garraio erregularrerako baimenak?
a.	Urte natural baterako.
b.	Urtebeterako, ematen den egunetik aurrera.
c.	Bi urterako.
d.	Kontratuak irauten duen eperako; hala ere, Administrazioak aldizkako oniritzia eska dezake.

20	¿Para qué período se otorgarán las autorizaciones de transporte regular de uso especial?
a.	Para un año natural.
b.	Para un año desde la fecha de expedición.
c.	Para dos años.
d.	Para el plazo de duración del contrato, si bien la Administración puede exigir su visado periódico.

21	Eskatu ahalako garraioa egin al dezakete erabilera orokorreko garraio erregularreko zerbitzu publiko bati atxikitako ibilgailuek?
a.	Bai, enpresak egokitzen jotzen badu.
b.	Bai, baldin eta garraio publikorako baimena badute.
c.	Bai, zerbitzu erregularra behar bezala emango dela bermatzen bada.
d.	Ez, zerbitzu erregularrean baino ezin dira erabili.

21	¿Pueden realizar transporte discrecional los vehículos adscritos a un servicio público de transporte regular de uso general?
a.	Sí, siempre que lo estime oportuno la empresa.
b.	Sí, siempre que dispongan de autorización de transporte público.
c.	Sí, cuando quede asegurada la correcta prestación del servicio regular.
d.	No, solo pueden utilizarse en el servicio regular.

22	Beharrezkoa al da garraio-baimena lortzea bidaiariak aireportu bateko ontziratze-gunearen eta hegazkinaren artean garraiatzeko?
a.	Bai, beti.
b.	Ez, inoiz ere ez.
c.	Bai, hegazkinaren helmuga nazioartekoa bada.
d.	Bai, bidaiari guztiak atzerritarrak direnean.

22	¿Es necesaria la obtención de autorización de transporte para la realización de un transporte de viajeros entre la zona de embarque de un aeropuerto y el avión?
a.	Sí, siempre.
b.	No, en ningún caso.
c.	Sí, cuando el destino del avión es internacional.
d.	Sí, cuando los viajeros son todos extranjeros.

23	Mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatutako eserlekuak dituzten autobusek egoera horren berri ematen duen piktograma bat izango dute:
a.	espaloiaaren ondoko aldearen aurrealdean, kanpotik ikusteko moduan.
b.	espaloiaaren ondoko aldearen aurrealdean, kanpotik eta barrutik ikusteko moduan.
c.	espaloiaaren ondoko aldearen erdialdean, kanpotik ikusteko moduan.
d.	espaloiaaren ondoko aldearen erdialdean, kanpotik eta barrutik ikusteko moduan.

23	Los autobuses que cuenten con asientos reservados a personas con movilidad reducida llevarán un pictograma indicativo de tal circunstancia:
a.	en la parte delantera del lado próximo a la acera, visible desde el exterior.
b.	en la parte delantera del lado próximo a la acera, visible tanto desde el exterior como desde el interior.
c.	en la parte central del lado próximo a la acera, visible desde el exterior.
d.	en la parte central del lado próximo a la acera, visible tanto desde el exterior como desde el interior.

24	Araudiak zer hartzen du eskuko fardeltzat?
a.	Bagajearen zati diren eta 2 kg baino gutxiago pisatzen duten fardelak.
b.	Bagajearen zati diren eta 5 kg baino gutxiago pisatzen duten fardelak.
c.	Ibilgailuan bidaiariarekin batera doazen objektuak.
d.	Bidaiari baten erabilera pertsonalerako objektuak, ibilgailuko bidaiari-tokian berarekin doazenak.

24	¿Qué se considera bultos de mano por la normativa?
a.	Aquellos bultos que, formando parte del equipaje, tienen un peso inferior a 2 kg.
b.	Aquellos bultos que, formando parte del equipaje, tienen un peso inferior a 5 kg.
c.	Aquellos objetos que acompañen al pasajero a bordo del vehículo.
d.	Aquellos objetos destinados al uso personal de un viajero que le acompañen en el habitáculo del vehículo.

25	Garraiolariak laguntza eman behar die mugikortasun murriztua duten eta 250 km-tik gorako ibilbidea duen zerbitzu erregular bat kontratatu duten pertsonen, baldin eta
a.	gutxienez 36 ordu lehenago adierazten badute laguntza horren beharra.
b.	idatziz eskatzen badute erreserba egiten duten unean.
c.	kontratatzeko badute erreserba egiten duten unean, dagokion gehigarria ordainduta.
d.	garraiolariak aldez aurretik bere web orrian eskainita badauka.

25	El transportista está obligado a prestar asistencia a las personas con movilidad reducida que hayan contratado un servicio regular con un recorrido superior a 250 km si
a.	indican la necesidad de dicha asistencia con una antelación mínima de 36 horas
b.	la solicitan por escrito en el momento de la reserva.
c.	la contratan, pagando el suplemento correspondiente, en el momento de la reserva.
d.	el transportista la tiene previamente ofertada en su página web.

26	Nola esaten zaio aseguratuak aseguratzailerari ordaintzen dion prezioari, aseguru-polizan hitzartutakoari?
a.	Arriskua.
b.	Prima.
c.	Hartzailea.
d.	Ezbeharra.

26	¿Cómo se denomina el precio que el asegurado paga al asegurador, estipulado en la póliza de seguro?
a.	Riesgo.
b.	Prima.
c.	Tomador.
d.	Siniestro.

27	Hauetatik, zein da erantzun okerra?
a.	Lan-jarrera desagokiak kalte fisikoak eragin ditzake.
b.	Eserita egin beharreko lanak eta zutik egin beharreko lanak txandakatzeko aukera eman behar da.
c.	Lanerako jarrerarik onena da eraginkortasunik handiena ahalbidetzen duena, ahalik eta neke handienarekin.
d.	Lanerako jarrera bakarra hartu behar bada, hobe da eserita egotea.

27	¿Cuál de estas afirmaciones es incorrecta?
a.	Una postura de trabajo inadecuada puede acabar produciendo daños físicos.
b.	Se debe facilitar la alternancia entre tareas de trabajo en posición sentado y tareas de trabajo en posición de pie.
c.	La mejor postura de trabajo es aquella que permite la mayor eficacia con la máxima presencia de fatiga.
d.	Si se obliga la adopción de una sola postura de trabajo, es preferible la posición sentada.

28	Zein dokumentu ez da nahitaezkoa ibilgailuan eramatea?
a.	Zirkulazio baimena.
b.	Fitxa teknikoa (IAT).
c.	Erantzukizun Zibileko poliza.
d.	ADR edo ATP ziurtagiriak, beharrezkoak direnean.

28	¿Qué documento no es obligatorio llevar a bordo del vehículo?
a.	Permiso de circulación.
b.	Ficha técnica (ITV).
c.	Póliza de seguro de responsabilidad civil.
d.	Certificado ADR o ATP cuando sean necesarios.

29	Zer neurri gomendatzen dira gidatzean nekea ez agertzeko?
a.	Behar den orduan jaikitzea gure helmugara garaiz iristeko.
b.	Kafe edo te asko hartzea.
c.	Ariketa lasaigarriak maiz samar egitea.
d.	Bidaia luze baten aurreko egunean ordu gutxi lo egiten saiatzea.

29	¿Qué precauciones son recomendables para evitar la aparición de fatiga durante de la conducción?
a.	Levantarse con la hora justa para llegar a tiempo a nuestro destino.
b.	Tomar mucho café o té.
c.	Realizar ejercicios relajantes con cierta frecuencia.
d.	Procurar dormir pocas horas el día anterior a un largo viaje.

30	Ibilgailura igotzeko edo handik jaisteko ohiko mugimendu errepikatuek:
a.	lesioak eragin ditzakete.
b.	istripuak eragin ditzakete.
c.	ez da beharrezkoa kontu handiz egitea.
d.	A eta B erantzunak zuzenak dira.

30	Los movimientos rutinarios y repetidos de subir o bajar del vehículo:
a.	se pueden convertir en motivo de lesiones.
b.	se pueden convertir en motivo de accidentes.
c.	no es necesario realizarlos con precaución.
d.	Las respuestas A y B son correctas.

31	Gidariaren gaitasun agiria eta gidariaren kualifikazio-txartela beharrezkotzat jotzen dira gidabaimen hauek eduki behar dituzten ibilgailu-gidariantzat:
a.	A, A1, B, B1.
b.	C, C+E, C1, C1+E.
c.	D, D+E, D1, D1+E.
d.	B eta C erantzunak zuzenak dira.

31	El certificado de aptitud profesional y la tarjeta de cualificación de conductor se consideran necesarios para aquellos conductores de vehículos que necesiten estar en posesión de los permisos de conducir:
a.	A, A1, B, B1.
b.	C, C+E, C1, C1+E.
c.	D, D+E, D1, D1+E.
d.	Las respuestas B y C son correctas.

32	Zerk eragin dezake gidari profesionalen estresa?
a.	Lan gainkargak.
b.	Bizi erritmo bizkorrak.
c.	Segurtasunik ezak edo frustrazio profesionalak eragindako arazoek.
d.	Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

32	El estrés, en los conductores profesionales, ¿de qué puede ser consecuencia?
a.	Sobrecarga de trabajo.
b.	Ritmo de vida acelerado.
c.	Problemas de inseguridad o de frustración profesional.
d.	Todas las respuestas anteriores son correctas.

33	Izotza dagoela bihurgune bat egitean, zer egin behar dugu?
a.	Azeleragailua kontu handiz zapaldu, enbragea ez zapaldu eta balazta ez ukitu.
b.	Azeleragailua kontu handiz zapaldu, enbragea zapaldu eta balazta ez ukitu.
c.	Azeleragailua bat-batean zapaldu, enbragea zapaldu eta balazta ez ukitu.
d.	Azeleragailua kontu handiz zapaldu, enbragea ez zapaldu eta balazta ukitu.

33	A la hora de tomar una curva con hielo, ¿qué actuación debemos seguir?
a.	Pisar delicadamente el acelerador, no pisar el embrague y no tocar el freno.
b.	Pisar delicadamente el acelerador, pisar el embrague y no tocar el freno.
c.	Pisar bruscamente el acelerador, pisar el embrague y no tocar el freno.
d.	Pisar delicadamente el acelerador, no pisar el embrague y tocar el freno.

34	Gauetz gidatzen badugu, zer gomendatzen da?
a.	Esne berorik ez edatea kantitate handietan.
b.	Ibilgailuaren barruan tenperatura altuan egotea.
c.	Afari handi bat hartzea.
d.	Likidorik ez hartzea.

34	Si conducimos de noche, ¿qué se recomienda?
a.	No beber leche caliente en grandes cantidades.
b.	Mantener una temperatura elevada en el interior del vehículo.
c.	Ingerir una cena abundante.
d.	No tomar líquidos.

35	Non aurki dezakegu takografo baten homologazio-marka?
a.	Takografoaren plaka deskribatzailean.
b.	Muntaia-plakan.
c.	Matrikula-plakan.
d.	Ibilgailuaren edozein lekutan egon daiteke.

35	¿Dónde podemos encontrar la marca de homologación de un tacógrafo?
a.	En la placa descriptiva del tacógrafo.
b.	En la placa de montaje.
c.	En la placa de matrícula.
d.	Puede estar situada en cualquier lugar del vehículo.

36	Lurreko eta hoditeria bidezko garraioaren sektorean, istripu hilgarrien kopurua beste jarduera-sektoreen batean baino txikiagoa da?
a.	Bai, eraikuntzan baino txikiagoa.
b.	Bai, industria kimikoan baino txikiagoa.
c.	Bai, abeltzaintzan baino txikiagoa.
d.	Ez, gainerako jarduera-sektoreetan baino handiagoa da.

36	¿El número de accidentes mortales en el sector del transporte terrestre y por tubería es inferior al de algún otro sector de actividad?
a.	Sí, al de la construcción.
b.	Sí, al de la industria química.
c.	Sí, al de la ganadería.
d.	No, es superior al de los restantes sectores de actividad.

37	Gaixotasun profesionalak dira:
a.	profesionalki gertatzen direnak.
b.	oso maiz gertatzen direnak.
c.	jarduera edo okupazio adar jakin batekin lotura dutenak.
d.	oso gutxitan gertatzen direnak.

37	Son enfermedades profesionales aquellas que:
a.	ocurren profesionalmente.
b.	ocurren muy a menudo.
c.	presentan relación con una determinada rama de actividad u ocupación.
d.	ocurren raras veces.

38	Zer erregistratu beharko du takografo analogiko batek?
a.	Enpresaren datuak.
b.	Erregistro-orria duen kutxaren irekierak.
c.	Takografoaren instalazio-data.
d.	Gidariaren datu pertsonalak.

38	¿Qué deberá registrar un tacógrafo analógico?
a.	Los datos de la empresa.
b.	Las aperturas de la caja que contiene la hoja de registro.
c.	La fecha de instalación del tacógrafo.
d.	Los datos personales del conductor.

39	Gidatzean, maniobrak segurtasunez egin ahal izateko, zer prebentzio-ekintza izango dira egokienak?
a.	Abiadura handian zirkulatzea.
b.	Abiadura azkar eta eraginkortasunez egokitzea trafikoaren egoerara.
c.	Behaketa maniobraren amaiera-puntuan kontzentratzea.
d.	Abiadura ahalik eta gehien murriztea, ibilgailuaren kontrola ziurtatzeko.

39	Durante la conducción, para poder realizar las maniobras con seguridad, ¿qué acciones de prevención serán más adecuadas?
a.	Circular a velocidad alta.
b.	Adaptar la velocidad a la situación del tráfico de forma rápida y efectiva.
c.	Concentrar la observación en el punto final de la maniobra.
d.	Reducir la velocidad al máximo para asegurar el control del vehículo.

40	Motorrak gehieneko parearen erregimen-eremuan funtzionatzen duenean...
a.	motorraren potentzia maximoa erabiltzen da.
b.	motorrak biraketa maximora biratzen du.
c.	hobeto aprobetxatzen da erregaia.
d.	motorrak biraketa minimora biratzen du.

40	Cuando el motor funciona en la zona de régimen de par máximo
a.	se utiliza el máximo de potencia del motor.
b.	el motor gira al máximo de revoluciones.
c.	se aprovecha mejor el combustible.
d.	el motor gira al mínimo de revoluciones.

41	Kanpoko aldean sute bat dagoenean autobuseko atea irekitzean, zer jarraibide bete behar dira?
a.	Sutea ezker aldean gertatzen bada, ireki bi atea.
b.	Ate guztiak ireki beti, sutea edonolako izanda ere.
c.	Sutea eskuinaldekoa bada, sutik urrunen dagoena bakarrik ireki.
d.	A eta C erantzunak zuzenak dira.

41	Al abrir las puertas del autobús en una situación de incendio en su parte exterior, ¿qué pautas se deben seguir?
a.	Si el incendio es en el lado izquierdo, abrir las dos puertas.
b.	Abrir siempre todas las puertas independientemente de dónde sea el incendio.
c.	Si el incendio es en el lado derecho, abrir solo la que esté más alejada del fuego.
d.	Las respuestas A y C son correctas.

42	Trafiko-istripu batean zauritutakoei laguntzeari dagokionez, adierazi baieztapen hauetako zein den okerra:
a.	Istripuaren bigarren egunetik aurrera gertatzen diren jarduerak dira garrantzitsuenak.
b.	Zaurituekin jardutearen helburua da zaurituak egonkortzea eta bizirik mantentzea.
c.	Ziur egon ezean, ez da ezer egin behar, biktimaren egoera larriagotu baitezake.
d.	Lehen orduan egiten diren jarduerak oso garrantzitsuak dira.

42	En relación con el auxilio a los heridos de un accidente de tráfico, señale cuál de las siguientes afirmaciones es incorrecta:
a.	Las actuaciones que se produzcan a partir del segundo día del accidente son las más importantes.
b.	El objetivo de la actuación con los heridos es conseguir su estabilización y el mantenimiento de su vida.
c.	No se debe actuar si no se está seguro de lo que se debe hacer, ya que se podría agravar la situación de la víctima.
d.	Las actuaciones que se produzcan en la primera hora son de vital importancia.

43	Faktore hauetako zeinek eragiten du garraio- enpresa bateko bezeroek jasotako zerbitzuaren kalitateari buruz egiten duten balorazioan?
a.	Antzeko zerbitzuetan izandako esperientziak.
b.	Inguruko iritziak.
c.	Eman zaien informazioa.
d.	Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

43	¿Qué factor de los siguientes influye en la valoración que los clientes de una empresa de transporte hacen sobre la calidad del servicio recibido?
a.	Sus experiencias previas en servicios similares.
b.	Las opiniones de su entorno.
c.	La información que se les ha proporcionado.
d.	Todas las respuestas son correctas.

44	Elementu hauetako zein ez da motelgailu mota bat?
a.	Motelgailu hidraulikoa.
b.	Motelgailu hidrodinamikoa.
c.	Motelgailu elektrikoa.
d.	Motelgailu termodinamikoa.

44	¿Cuál de los siguientes elementos no es un tipo de ralentizador?
a.	El ralentizador hidráulico.
b.	El ralentizador hidrodinámico.
c.	El ralentizador eléctrico.
d.	El ralentizador termodinámico.

45	Zein da istripu-adierazpen adiskidetsuaren helburu nagusia?
a.	Ibilgailu batean izandako kalteak ikertzea.
b.	Zirkulazio-istripu batean kaltetutakoei ahalik eta azkarren kalte-ordaina ematea.
c.	Ezbehar baten erantzuleak nor diren jakitea.
d.	Justizia Administrazioaren eta aseguru-etxeen lana erraztea.

45	¿Cuál es el principal propósito de la declaración amistosa de accidentes?
a.	Averiguar los daños producidos en un vehículo.
b.	Indemnizar lo antes posible a los perjudicados en un accidente de circulación.
c.	Averiguar la identidad de los responsables de un siniestro.
d.	Facilitar la labor de la Administración de Justicia y de las compañías de seguros.

46	Zein dira iraupen luzeagoko laneko bajak eragiten dituzten lan-istripuak?
a.	Modu ez traumatikoko istripuak.
b.	Modu traumatikoko istripuak.
c.	Jatorri bortitzeko istripuak.
d.	Kanpoko elementu bat protagonista nagusi duten istripuak.

46	¿Cuáles son los accidentes de trabajo que producen bajas laborales con una duración más larga?
a.	Los accidentes con forma no traumática.
b.	Los accidentes con forma traumática.
c.	Los accidentes de origen violento.
d.	Los accidentes cuyo protagonista principal es un elemento externo.

47	Zein dira opioak gidatzean eragiten dituen ondorioak?
a.	Mozkortuta egotearen antzeko egoera, arriskuaren pertzepzioa gutxitzen duena.
b.	Shock handi bat, konbultsio eta karranpekin, indarkeriazko ekintzak eragin ditzakeena.
c.	Norberaren gaitasunaren gehiegizko balorazioa eta gehiegizko konfiantza.
d.	Asaldura egoera.

47	¿Cuáles son los efectos que suele producir el opio en la conducción?
a.	Un estado semejante a la embriaguez, en el cual disminuye la apreciación del riesgo.
b.	Un fuerte shock con convulsiones y calambres, pudiendo originar actuaciones violentas.
c.	Una sobrevaloración de la propia capacidad y un exceso de confianza.
d.	Un estado de excitación.

48	Ergonomiari egiten dion ekarpenagatik, zein da funtsezko zientzia?
a.	Anatomia.
b.	Giza fisiologia.
c.	Psikologia.
d.	Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

48	¿Cuál es la ciencia fundamental por su aportación a la Ergonomía?
a.	Anatomía.
b.	Fisiología humana.
c.	Psicología.
d.	Todas las respuestas anteriores son correctas.

49	Adiskidetasunezko istripu-adierazpenean, istripuaren lekua jaso behar da?
a.	Bai.
b.	Hiri barruko bide batean gertatu denean bakarrik.
c.	Hiriarteko bide batean gertatu denean bakarrik.
d.	Espainian gertatu denean bakarrik.

49	En la declaración amistosa de accidentes, ¿se debe hacer constar el lugar del accidente?
a.	Sí.
b.	Solo cuando haya sucedido en una vía urbana.
c.	Solo cuando haya sucedido en una vía interurbana.
d.	Solo cuando haya sucedido dentro de España.

50	Kafearen edo beste estimulatzailer natural batzuen dosi egoki batek zer onura sortzen ditu?
a.	Nekea arintzen du.
b.	Erreflexuak errazten ditu.
c.	Esaldi egoera mantentzen laguntzen du.
d.	Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

50	Una dosis adecuada de café o de otros estimulantes naturales, ¿qué beneficios genera?
a.	Alivia la fatiga.
b.	Facilita los reflejos.
c.	Ayuda a mantener el estado de vigilia.
d.	Todas las respuestas anteriores son correctas.

51	Ba al du takografo analogikoaren erregistro- orriak diskoa jartzean edo kentzean gidaria non dagoen idazteko eremurik?
a.	Bai, baina diskoa jartzen duenerako bakarrik.
b.	Ez.
c.	Bai, baina diskoa kentzen duenerako bakarrik.
d.	Bai, bi kasuetarako.

51	¿Tiene la hoja de registro del tacógrafo analógico alguna zona destinada a anotar el lugar donde se encuentra el conductor al poner o quitar el disco?
a.	Sí, pero solo para cuando pone el disco.
b.	No.
c.	Sí, pero solo para cuando quita el disco.
d.	Sí, para ambos casos.

52	Motor baten lubrifikazio-sistemaren mantentze desegoki batek...
a.	erregai-kontsumoa handitu dezake.
b.	piezen higadurari bakarrik eragiten dio.
c.	ez dio eragiten piezen higadurari.
d.	ezin du eraginik izan erregai-kontsumoan.

52	Un inadecuado mantenimiento del sistema de lubricación de un motor:
a.	puede aumentar el consumo de carburante.
b.	solo afecta al desgaste de las piezas.
c.	no afecta al desgaste de las piezas.
d.	no puede influir en el consumo de carburante.

53	Galtzada izotzez estalita badago eta balazta- pedala indarrez zapaltzen bada, balaztak ez blokeatzeko sistemak (ABS) gorpila blokeatzea saihesten du?
a.	Ez, ABSak galtzada lehor dagoenean bakarrik betetzen baitu bere funtzioa.
b.	Bai, baina pneumatikoak nahikoa marrazki badu bakarrik.
c.	Ez, ABSak ez baitu bere funtzioa betetzen galtzadan izotza edo elurra badago.
d.	Bai.

53	Si la calzada está cubierta de hielo y se pisa fuertemente el pedal del freno, el sistema antibloqueo de frenos (ABS), ¿evita el bloqueo de la rueda?
a.	No, porque el ABS cumple su función solo si la calzada está seca.
b.	Sí, pero únicamente si el neumático presenta dibujo suficiente.
c.	No, porque el ABS no cumple su función si la calzada presenta hielo o nieve.
d.	Sí.

54	Aseguru-kontratuan, nola deitzen zaio aseguratzailerekin kontratatzen duenari?
a.	Aseguratua.
b.	Hartzailea.
c.	Onuraduna.
d.	Hirugarrena.

54	En el contrato de seguro, ¿cómo se llama a quien contrata con el asegurador?
a.	Asegurado.
b.	Tomador.
c.	Beneficiario.
d.	Tercero.

55	Automobil batek eskuzko aldaketa edo abiadura-aldaketa automatikoa duen abiadura-kaxa bat muntatuta izateak ba al du eraginik erregaiaren kontsumoan?
a.	Bai, abiadura-kaxa automatikoekin kontsumoa handiagoa da.
b.	Bai, abiadura-kaxa automatikoekin kontsumoa txikiagoa da.
c.	Abiadura berdina bada, ez du eraginik.
d.	Gidatzeko estiloa berbera bada, ez du eraginik.

55	El que un automóvil monte una caja de velocidades con cambio manual o con cambio automático, ¿influye en el consumo de carburante?
a.	Sí, con las cajas de velocidades con cambio automático el consumo es mayor.
b.	Sí, con las cajas de velocidades con cambio automático el consumo es menor.
c.	Si la velocidad es la misma, no influye.
d.	Si el estilo de conducir es el mismo, no influye.

56	Bidaia bat planifikatzean, ibilgailuaren gidariak dokumentazio hau daramala egiaztatu behar du:
